

UDAL ESTABLEZIMENDUETAN HEZKUNTZA BEREZIEN ZERBITZUGINTZAGATIKO TASAREN ZERGA ORDENANTZA ARAUPETZAILEA. 2017. URTEA

I.- XEDAPEN OROKORRAK

1.- Artikulua.-Udal honek, Lurralde historikoko Toki Ogasunen Foru Arau erregulatzailerekin bat etorriz, Eranskinean jasotzen diren zerbitzugintzagatiko eta jarduerak egiteagatiko tasak ezartzen eta eskatzen ditu, Ordenantza honek ezartzen duen eran, haiek honen barne daudelarik.

2.- Artikulua.-Ordenantza hau udal mugarte osoan ezartzen da.

II.- ZERGA EGITATEA

3.- Artikulua.-Zerga egitatea Udal Administrazioak zerbitzu ematea edo jarduerak egitean datza, partikularrek eskatuz gero.

III.- SUBJEKTU PASIBOA

4.- Artikulua.-1.- Subjektu pasiboak dira, zergadunen kontzeptupean, Zergei buruzko Foru Arau Orokorrean jasotzen diren pertsona fisiko eta juridikoak eta erakundeak.

5. artikulua: Udalerrian bizi diren ikasleen guraso eta tutoreek, edota udalerrian bizi ez arren, plazak egonda 2007ko udako ikastaroetan parte hartzeko izena eman dutenek, tasak ordaindu beharko dituzte.

IV.- SALBUESPEN ETA HOBARIAK

6. artikulua.-Tasa honetatik salbuetsiko dira unean uneko dirulaguntzak, gizarte larrialdiko dirulaguntzak edo oinarrizko errentak eskatzen dituzten pertsonak.

V. ZERGA OINARRIA

7. Artikulua.-Zerga oinarria kopuru finko baten arabera ezartzen da, kuota hau Zerga Ordenantza honen Eranskinean azaltzen delarik

VI.- SORTZAPENA

8.- Artikulua.-Tasa errekupeazio hezkuntza jardueretan parte hartzeko izen ematea ematen denean sortzen da eta hor hasten da zergak ordaindu beharra.

VII.- LIKIDAZIOA ETA SARRERA

9.- Artikulua.-Likidazioa izena ematean egingo da eta orduen egingo da sarrera ere, udal utxetan sartuko den ordainagiriaren bidez.

VIII.- AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau eta Eranskina 1999ko irailaren 23an, 2001eko irailaren 28an, 2003eko azaroaren 28an, 2004ko azaroaren 26an, 2005eko azaroaren 25ean, 2006ko abenduaren 22an, onetsi dira, Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta 2007ko urtarrilaren 1ean sartuko dira indarrean eta indarrean jarraituko dute bere aldarazpena erabaki arte.

ERANSKINA TARIFA:

Izena ematen duen pertsona bakoitzeko 29,30 euro